



# DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOAREN PROTOKOLOA KORONABIRUSAREN HARIRA EZARRITAKO ALARMA EGOERAREN AURREAN

Koronabirusaren hedapena dela eta, **Eusko Jaurlaritzak eta Espāñako Gobernuak osasun larrialdia eta alerta egoera ezarri dituzte**, hurrenez hurren. Hori horrela, eta datozen egun eta asteetan gaixotasunaren intzidentziak gora egingo duela aurreikusten denez, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak neurri berriak hartu ditu COVID-19aren hedapena eragozteko dinamikara batu eta gerta daitezkeen kutsatzeak saihesteko.

Jarraian, orain arte hartutako neurriak laburbildu dira. Hala ere, ez da baztertzen unean uneko beharrei erantzuteko neurri berriak hartzea:

## 1. NEURRI OROKORRAK

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak **zerbitzu guztietan bermatuko du herritarren arreta telefonoz eta baliabide telematikoen bidez**. Aurrez aurreko arreta premiazkoa bada, beharrezkoa izango da aurretiko hitzordua hartzea.

Baliabide horiek, oro har, honako hauek izango dira (baina zerbitzu bakoitzak eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen jarraituko du):

- **Gizarte zerbitzuak**

- ✓ E-maila: [bsocial.mdurango@bizkaia.org](mailto:bsocial.mdurango@bizkaia.org)
- ✓ Telefonoa: 94 620 04 92 / 629 40 86 69
- ✓ Larrialdiak (24 ordu): 94 402 50 50

- **Hirugarren adina**

- ✓ E-maila: [terceraedad.mdurango@bizkaia.org](mailto:terceraedad.mdurango@bizkaia.org)
- ✓ Telefonoa: 94 620 05 46

- **Zaintzaileak – Zaindu:**

- ✓ E-maila: [zaindu.mdurango@bizkaia.org](mailto:zaindu.mdurango@bizkaia.org)
- ✓ Telefonoa: 94 603 00 46



- **Adikzioen prebentzioa:**
    - ✓ E-maila: [prevencion.mdurango@bizkaia.org](mailto:prevencion.mdurango@bizkaia.org)
    - ✓ Telefonoa: 94 620 05 20
  - **Behargintza – Prestakuntza eta emplegua:**
    - ✓ E-maila: [behargintza.mdurango@bizkaia.org](mailto:behargintza.mdurango@bizkaia.org)
    - ✓ Telefonoa: 94 623 25 22
  - **KIUB – Kontsumitzailearen arretarako bulegoa:**
    - ✓ E-maila: [omic.mdurango@bizkaia.org](mailto:omic.mdurango@bizkaia.org)
    - ✓ Telefonoa: 94 620 27 07
  - **Euskara:**
    - ✓ E-maila: [euskera.mdurango@bizkaia.org](mailto:euskera.mdurango@bizkaia.org)
    - ✓ Telefonoa: 94 627 86 40
  - **Administrazio Orokorra:**
    - ✓ E-maila: [mdurango@bizkaia.org](mailto:mdurango@bizkaia.org)
    - ✓ Telefonoa: 94 681 81 16
- 
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren instalazio guztietako garbiketa lanak areagotu dira
  - Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren **kirol instalazioak** (Atletismo pista, Belodromoa eta Trinketea) itxita egongo dira abisu berria eman arte
  - Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak, hemendik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren eta arlo bakoitzean eskumena duten agintarien esku jarriko ditu bere baliabide guztiak



## 2. AMANKOMUNAZGOKO LANGILERIARI DAGOZKION NEURRIAK

- Langile guztiei bidali zaizkie Osakidetzaren osasun eta higiene gomendioak eta bistara jarri dira sail guztietan. Gomendio horiek zorrotz betetzeko ere eskatu da.
- Osagarri gisa, areagotu egin dira **higiene eta norberaren babeserako neurriak**:
  - a. Eskuak estutzea eta pertsonen arteko kontaktu fisikoa saihestea
  - b. Begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzea eskuak behar bezala garbitu ez badira
  - c. Eztula egiterakoan ahoa besaurrearekin edo mukizapi batekin estaltzea
  - d. Edari edo elikagairik ez partekatzea, ezta tresneria-material komunik ere. Norberaren edo erabili eta botatzekoa den tresneria-materiala erabiltzea
  - e. Ez partekatzea ordenagailu eta teklatuak. Beharrezkoa izanez gero, eskuak garbitzeko neurriak aplikatuko dira lana hasi aurretik eta ostean.
  - f. Langileren batek arnasketa sintomarik izanez gero, Osakidetzarekin harremanetan jarriko da berehala, 900 20 30 50 telefono zenbakiaren bidez. Era berean, arduradunari jakinarazi beharko dio, horrek dagozkion neurriak har ditzan.
- Mota guztietako **ekintza** eta **talde jarduerak** eten egin dira aldi baterako
- **Aurrez aurreko bilerak bertan behera geldituko dira aldi batez**, zerbitzuaren funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak diren bilerak izan ezik. Kasu horietan, alde batetik, presidentearen baimena beharko da bilera egin ahal izateko; bestetik, prebentziozko higiene neurri zorrotzak hartu eta 1,5 metroko gutxienerako segurtasun tartea errespetatu beharko da.
- **Lanaldia malgutu egingo da**: 6:00etatik 22:00etara bete ahal izango da, betiere, emandako zerbitzuaren kalitatea bermatuz.



- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko langileek **etxetik lan egin** ahal izateko behar diren baliabide teknikoak prestatutko dira, betiere, zerbitzu guztiak bermatuz. Horrela nahi duten langileek idatziz jakinarazi beharko dute, eta erantzuna ahalik azkarren ematen saiatuko gara.
- Lan poltsa bat prestatuko da: baliteke koronabirusaren eraginez oinarrizko zerbitzu publikoetako langileak ordezkatu behar izatea; kasu horretan, egin beharreko eginkizunetarako prestakuntza egokia duten langileez osatutako lan poltsa ezinbestekoa izango da berehalako ordezkapena bermatzeko.

### **3. ZERBITZU BAKOITZEKO NEURRI ESPEZIFIKOAK**

#### **3.1. Gizarte Zerbitzuak**

- 3.1.●.1. Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak **herritarren arreta bermatuko du telefonoz eta baliabide telematikoen bidez**. Aurrez aurreko arreta premiazkoa den kasuetan, beharrezkoa izango da **aurretiko hitzordua** hartzea.  
Gizarte Zerbitzuetarako adierazi diren telefono eta helbide elektroniko orokorrez gain, udalerrri bakoitzak bere erreferentziazko langilearen telefonoa eta helbide elektronikoa argitaratu ahal izango ditu erraz ikusteko moduko leku baten, webgunean, bando bidez edo bestelako baliabideen bidez ere (I. ERANSKINA)
- 3.1.●.2. Gizarte larrialdiei, bulego ordutegitik kanpo, **94 402 50 50** telefonoan erantzungo zaie
- 3.1.●.3. **Postontzi** bat jarri da Gizarte Zerbitzuen egoitzaren kanpoaldean (Bruno Mauricio Zabala, 9). Atzeraezinekoa den dokumentazioa bertan entregatu ahal izango da.
- 3.1.●.4. Oinarrizko zerbitzuak bermatzeko beharrezkoa izanez gero, **txanda sistema** bat definituko da Gizarte Zerbitzuen egoitzan. Txanda bakoitzean gizarte langile bi eta administrari bat egongo dira.



- 3.1.●.5. **Gizarte larrialdietak laguntzak** bermatze aldera, 2020-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Durango Merinaldearen Amankomunazgoko presidentearen ebazpen bidez onartuko da, eta gero Osoko Bilkurak berretsiko du.
- 3.1.●.6. Gizarte langileen **koordinazio bilerak eten egingo dira aldi batez**, baita bestelako bilera edo talde jarduerak ere.
- 3.1.●.7. Gurutze Gorriaren eta Amankomunazgoko Gizarte Zerbitzuen eta Adinekoen Zerbitzuaren arteko koordinazio talde bat sortu da. Horrekin batera, **telefono bidezko laguntza eta etxez etxeko laguntza emateko sistema bat ere definitu da, ondorengo puntu hauetan laburbidu dena:**
- Telefono bidezko jarraipena egitea bakardade edo isolamendu egoeran dauden pertsona nagusiei, desgaitasunen bat duten pertsonen edota egoera bereziki ahulean dauden errefuxiatuei.
  - Elikagaien eta oinarritzko higie artikuluen hornidura kudeatzea
  - Laguntza farmakologikoa ematea. Hori bereziki gaixo kronikoei zuzenduta egongo da, eta betiere, mediku batek agindutako farmakoetara mugatuko da.
  - Gizarte Zerbitzuak telefono (94 422 22 22) eta email bidez ([virusbizkaia@cruzroja.es](mailto:virusbizkaia@cruzroja.es)) koordinatuko du lana (Gurutze Gorriarekin)
  - Lan guztiak egiteko, **voluntario sare** indartsu bat behar da: alde batetik, modu antolatu eta koordinatuan lan egingo duena; bestetik, horretarako behar den prestakuntza eta baliabideak izango dituen. Izena eman nahi dutenek, mezu elektronikoko bat bidali dezakete Gurutze Gorrira ([voluntariadobizkaia@cruzroja.es](mailto:voluntariadobizkaia@cruzroja.es)) edo Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako **#bizkaigara** boluntario sarearekin bat egin dezakete ([bizkaigara@bizkaia.eus](mailto:bizkaigara@bizkaia.eus) / 94 416 15 11)
  - Durango Merinaldearen Amankomunazgoak hainbat programetako erabiltzaileei buruzko informazioa dauka (Nagusilagun, Zaindu, Etxez etxeko arreta zerbitzua, Beti On,



Eguneko Zentroak...)). Horien bidez aurretiaz identifikatuta ez ditugun adineko pertsona eta pertsona kalteberak identifikatu ahal izateko, erroldako zenbait datu eskatu zaizkie Amankomunazgoa osatzen duten udalerriei:

1. Bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako pertsonen zerrenda.
2. Etxean bakarrik edo pertsona batekin bizi diren 80 urtetik gorako pertsonen zerrenda.

#### 3.1..8. **Gaueko harrera zerbitzua:**

- Errota Ostatuarekiko koordinazioa areagotu da, eta higienari eta segurtasun distantziei dagokienez, beharrezko prebentzio neurri guztiak hartu dira. Errota Ostatuak konpromiso handia erakutsi du, eta kalitate irizpideek ezarritakoaren arabera kontratatutako 10 plazekin, elkarlanerako eta zerbitzua bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko prestutasuna erakutsi du, egoera konplexua izan arren.
- Alerta egoerak iraun bitartean, eten egingo da gehienezko 3 eguneko epea. Modu horretan, bermatu egingo da pertsona kalteberak leku berean egon ahal izatea.

#### 3.1.9. **Gaua igarotzeko plazak gehitzea eta egunez egoteko espazio bat gaitzea**

- Gaua igarotzeko plazen eskaria handitu egingo dela aurreikusten da. Hori horrela, Gurutze Gorriak 15 ohe utzi dizkio Amankomunazgoari dagozkien manta eta mikrouhin labeekin, alerta egoerak iraun bitartean erabili ditzan.



- Behargintzako Pentagonoan espazio bat prestatu da hala behar duten pertsonak, alerta egoerak iraun bitartean, eguna bertan igaro dezaten; baita oinarrizko elikadura eta higiene beharrak ase ditzaten ere. Gurutze Gorriak beharrezko langileak jarri ditugune horretan laguntza eta segurtasuna emateko.
- Funtsezkoa da oinarrizko zerbitzuek eta hitzarmena sinatu duten erakundeetako Udaltzaingoak koordinazioa estutzea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko oinarrizko zerbitzuekin. Harremanetarako kontaktua: 608 502 679 (Edurtze)
- Alerta egoerak iraun bitartean, paseak Durangon banatuko dira, Behargintzako Pentagonoan, 9:00etatik 19:00etara bitartean. Mankomunatatutako eta hitzartutako beste udalerrri batzuetatik datotzen erabiltzaile berriek jatorrizko udalerrian jaso beharko dute baimena (Udaltzaingoa edo Udaletxean). Ohe eta mantenu premiaren eguneroko aurreikuspena egin ahal izateko, udalerriek baimenen horien berri emango diote Amankomunazgoari 18:00ak baino lehen (Edurtze, 608 502 679)

### **3.2. Hiriko Hondakin Solidoen Bilketa**

- 3.2.1. **Hondakinak biltzeko oinarrizko zerbitzu publikoa** normaltasunez garatzeko, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu.
- 3.2.2. Garbiketarako kontratatutako enpresari instalazioak garbitzeko lanak areagotzeko eskatu zaio
- 3.2.3. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari eskatu zaio “COVID-19 koronabirusaren aurrean hartu beharreko prebentzio neurriak” izeneko dokumentua sortzeko. Helburua lan arriskuen prebentzioaren arloan langileak babesteko behar diren neurriak hartzea da (2. ERANSKINA).
- 3.2.4. COVID-19aren aurrean hondakinak biltegitartzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan jarraitu beharreko argibideak ezagutarazi dira (3. ERANSKINA)



Prebentzio neurri horiek guztiak salbuespenezko neurriak dira, osasun agintarien gomendioak jarraituz hartu direnak, eta abisu berria eman arte mantenduko dira. COVID-19aren hedapena eragozteko dinamikara batu eta gerta daitezkeen kutsatzeak saihestea da helbura, eta ez da baztertzen, beharrezkoa izanez gero, neurri berriak hartzea.

Egoera honen aurrean, beharrezkoa da Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko langile guztiei erantzukizun pertsonal zein kolektiboa eskatzea, baita lankidetzarako deia luzatzea ere. Funtsezkoa da erakunde eskudunek koronabirusaren hedapenari eusteko unean-unean egiten dituzten gomendio guztiak betetzea, horrela osasun alerta egoera lehenbailehen gainditzeko. Bitartean zerbitzu publikoak bermatuko ditugu.

Amaitzeko, bizi dugun momento honetan, ezinbestekoa da Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa osatzen duten pertsonen inplikazioa, lankidetzeta eta konpromisoa aitortzea eta eskertzea.

**Abadiñon, 2020ko martxoaren 17an**